


# nafarroa



## «Nafarroako euskaldun bat»?

Manuel Aznar Zubigaray hil da, 80 urterekin. Etxalarrereko seme ospetsu hau, idazle, kazetari eta diplomatiko oso ezaguna zen Espainian. Atzerrian oso ezagutua zen.

Haren borondateari jaramon\* eginez, beraren sorterrira, Etxalarrera ekarri dute enterratzera. Hiletak direla eta, haren bihotz ona eta tituluak bakarrik ez baina haren euskaltzatasuna ere aldarrikatu\* nahi izan dira.

Gauza guztien gainetik bere «Bidasoako errepublika tipia» maite zuela irakurtzen nuen bitartean, beste zer-bait pentsatzen nuen nik. Halegia,\* ba direla kanpoan oso ospetsu diren euskal gizon batzu,\* Euskal Herria tipizat-edo jotzen duten batzu, gure gizarteak goimailako lanik eskaintzen ez dielako edo handikerietan amets eginez bizi direlako. Esanak esan, Manuel Aznar jauna ez da bizirik bere herrira itzuli. Hilda ekarri dute. Euskal Herriak, ordea, gizon biziak behar ditu.

Bera «Nafarroako euskaldun bat» zela esaten omen zuen Aznar jaunak. Non jartzen da euskalduntasuna? Ba da joera oso hedatu\* bat. Batzuren\* ustez, inguruan, geografian, paisajea, ohitura zenbaitetan edo folklorea hasi behar da euskalduntasunaren bila. Euskal pertsonaiak deskribatzen dituelako da bat euskal idazlea, hauen eritzian. Azpimarkatzekoa da, hauengan somatzen den hizkuntzaren falta. Hizkuntza folklorea zati bat bailitzen,\* ez besterik.

Aznar jaunak bere buruaz zioena ikusita, benetan euskaldun bat ahal zen Aznar? Zernolako garrantzia eman ohi zion hizkuntzari? Mintzatzen ahal zen euskaraz? Ez dakit deus\* ere. «Huntaz eta Hartaz»eko Txilardegik euskalduntzat hartuko ahal zukeen? «Gure mintzaira ez dakiena, ez da euskalduna» idatzi zuen han. Eta areago:\* «Euskeraz ez dakitenak, ordea, euskera mintzabidetzat ez dutenak zehatzago azaltzeko (mintzaira bera lekuko\*), Euskal Herriak ez ditu sekulan euskalduntzat hartu, atzerriartzat baizik...»



## Aldizkarien munduan

● GOIZ-ARGI, 267. zenbakian, arras\* berriturik datorrigu. Itxuraz, luze-zabalez. Lehengoaren aldean oso dotore. Neurriak tipitu egin dituzte, eta horriak gehitu. Hamasei horrialdetakoa da orain, horietarik zortzi koloretan direlarik.

Ezagutzen ditugun izenetatik soma daitekeenez, GOIZ-ARGI egiten ari dena lehengo talde bera da, osoagoturik badago ere. AGURekoak ere horra etortzekotan dira nonbait. Ez du ematen,\* joeraz aldatu denik.



Gauza batek utzi gaitu benetan harriturik. Urtea amaitu aurretik aldizkariaren neurriak aldatzea ez da batere normala. Oker ez banago, aldizkariaren aldakuntzak urte berriarekin batera egin ohi dira, bestelako arazo nagusirik tartean ez dagoenean noski.

● ANAITASUNA ere eraberritze asmotan dabil, azkenaldi hontan. Baina egon lasai, irakurle bildumatzaila,\* egin behar duguna urtearen hasera baino lehen ez dugu egingo eta.

● AGUR hildakotzat eman daiteke. Oraingo eta apur baterako bakarrik ixiltzen dela esanez, birpiztearen esperantzaren argiak irakurlearengan itzali gabe iraun dezan nahi dute AGURtarrek nonbait. Hala ere, heriotza horrek hiru egun baino gehiago iraungo ote duen gauden, idazleari bezala irakurleari ere GOIZ-ARGIra joateko deia AGURek berak egiten diela ikusirik.

Diru aldetik nahiko urri dabilelako hartu omen dute gehiago ez argitaratzeko erabakia. Horregatik, eta indar guztiak bat eginda irintenbide hobeago bat lortzekotan.

● Euskal egunkariak, entzun dugunez, pot\* egin du, jaiorduko egin ere. Han eta hemen esan zigutenaz baliaturik, ba genekien oso aurrera zihoala asmo eta proiektu hori. Baina, nonbait, haseran uste zen baino diru gehiago behar edo... Ez dakigu. Horren berri ematean jartzen genituen hiru baldintzetatik lehenengoan pot egin ote dute, bada, antolatzaileek? (ikus ANAITASUNA, 304. zenbakia). Astekari batekin konformatzen bide\* dira gaurkoz. (Joan Altzibar)

## Liburu berriak

USURBIL, 1375-1971

Usurbilgo Udaletxearen\* babespean eginko liburu mardul eta dotore bat dugu aurrean, zer bait gaztelaniaz eta gehiena euskaraz idatzia. Argazki asko dakartza, batzu\* zuri eta beltzez, eta gainerakoak koloretan, lehengo eta gaurko Usurbil erakusten digutenak. Idazlanen egileak, usurbildarrak dira gehienak.